

#udaltop16



udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

UDALTOP 2024:
TALDE DINAMIKAREN
TXOSTENA

www.udaltop.eus



UDALTOP 2024: TALDE DINAMIKAREN TXOSTENA

2024ko UDALTOP jardunaldietan bi orduko talde dinamika egin genuen maiatzaren 17an. Jardunaldietako parte-hartzaile guztientzako ariketa zen eta 14 taldetan banatuta bina ariketa egin zituzten.

Txosten honetan jaso dugu egindakoa eta ondorio nagusiak.

AURKIBIDEA

1. KOKATZE ARIKETA	3
2. HARRERA IBILBIDEA IRUDIKATZEA	4
3. ERAGITEKO GUNEA IDENTIFIKATZEA	6
4. ONDORIOAK	7

1. KOKATZE ARIKETA

Taldekide guztiak altxatu eta 3 baieztapen hauetan kokatzeko eskatu genien. Gelan lerro zuzen bat irudikatu behar zuten lurrean, alde batean 0 (oso gutxi) eta bestean 10 (asko).

- 1) Harreraren gaia ezagutzen dut
- 2) Gai honekiko kezka daukat nire lanean
- 3) Datozen 3-4 urteetan nire lanean gai honetan eragitea aurreikusten dut



Ondorio nagusia izan zen **euskara teknikariek ezezagutza handia dutela gaiarekiko, baina kezka handia eta gaiari heltzeko eta lanean hasteko gogoia eta asmo sendoa.**

2. HARRERA IBILBIDEA IRUDIKATZEA

Ariketa hau egiteko 7 profil sortu genituen eta talde bakoitzean profil bat landu zuten.

NOR NAIZ
Jatorria, adina, sexua, ikasketak

Nikaraguarra naiz
52 urte ditut eta emakumea naiz
Administratzailea izan nuen

ZER IRUSI/ENTZUN
Bere ingurumena: lagunak, ikaskide-lankideak, familia
Pertsona/giro erreferentziak

Bi seme-alaba ditut.
Nikaraguarri Euskal Herrira etorri nintzen, Nikaraguan 3 lan edukita ere, ezin nuztako bitza aurrera ateru.
Euskal Herrian lehengusua nuela eta, hona etortzea erabaki nuen, Beasainera.

Adineko pertsona esukaldun baten zaintzailea. Paseatu eta kafea hartzeko lehengusua batekin gelditzen naiz

Gastelaniaz egiten dut

LAIA, ASIA
Aita, portarrek, jenerrek...

Sandia
52 urte

HIZKUNTZEKIN ZER
Zain hizkuntza jakin eta erabil... Hizkuntza-ibilbidea

NOR NAIZ
Jatorria, adina, sexua, ikasketak

15 urteko neska pakistandarra naiz.

ZER IRUSI/ENTZUN
Bere ingurumena: lagunak, ikaskide-lankideak, familia
Pertsona/giro erreferentziak

Azkoitian bizi naiz eta DBHn nabil.
Ikaskideen artean ez ditut lagun onak, sortutako kuadriletan ez nago.
Serideekin batera meskilara josten naiz.

Irakurtzea gustatzen zait, bai eta dantza egitea ere.
Txikiagoa nintzenean kalean ibiltzen nintzen, orain nire komunitateko beste neska batzuekin etxean egoten naiz.

Urdua eta inglesa hitz egiten ditut

LAIA, ASIA
Aita, portarrek, jenerrek...

Maiara
15 urte

HIZKUNTZEKIN ZER
Zain hizkuntza jakin eta erabil... Hizkuntza-ibilbidea

NOR NAIZ
Jatorria, adina, sexua, ikasketak

20 urteko mutil senegaldarra naiz.
Oinarriko ikasketak egin ditut

ZER IRUSI/ENTZUN
Bere ingurumena: lagunak, ikaskide-lankideak, familia
Pertsona/giro erreferentziak

Mutrikun bizi naiz eta beste 3 lagunekin batera gero batean bizi naiz.

Arrantzaile lanetan hasi naiz Mutrikun.
Kalean ibiltzea duf gustuko, baita futbolean aritzea ere.

3 hizkuntza dakizkit: frantsesa, wolofera eta fula.

LAIA, ASIA
Aita, portarrek, jenerrek...

Chiek
20 urte

HIZKUNTZEKIN ZER
Zain hizkuntza jakin eta erabil... Hizkuntza-ibilbidea

NOR NAIZ
Jatorria, adina, sexua, ikasketak

30 urteko emakume alemaniarra naiz.

ZER IRUSI/ENTZUN
Bere ingurumena: lagunak, ikaskide-lankideak, familia
Pertsona/giro erreferentziak

Donostian bizi naiz. Nire bikotekidea Poloniarra da eta haardun nago.
Nire seme-alabek ingeles eskola batean ikastea nahiko nuke.

Miramongo zentro teknologikoan lan egiten dut.
Zinea, gastronomia eta yoga egitea ditut gogoko.

3 hizkuntza dakizkit: alemana, ingelesa eta gastelania.

LAIA, ASIA
Aita, portarrek, jenerrek...


Rita
30 urte

HIZKUNTZEKIN ZER
Zain hizkuntza jakin eta erabil... Hizkuntza-ibilbidea

2. HARRERA IBILBIDEA IRUDIKATZEA



Egokitutako profila zein zen eta zer ezaugarri zituen irakurriko ondoren profil horretako pertsonaren ibilbidea irudikatzen saiatu ziren taldeetako kideak: zer ibilbide egin du/gingo du Euskal Herrira iristean? nora joango da pertsona hori? zein gune formaletara joko du? eta informaletara?



3. ERAGITEKO GUNEAK

IDENTIFIKATZEA

Ibilbidea irudikatu ondoren taldeetan landu zuten ibilbide horretako ze puntutan eragingo luketen normalizazio ikuspegitik, galdera hauen laguntzaz:

- Zer behar ditu hizkuntza arloan?
- Zer esan nahi diozu?
- Zer lortzeko?
- Zein urrats emango dituzu harrera integral bat emateko egitura sortzeko (harrera-mahaia, harrera eremua...)?
- Udaleko eta herriko norekin arituko zara elkarlanean harrera integralerako bidean?

1.- Ibilbidea irudikatuta, hausnartu ibilbide horretako ze puntutan eragingo dugun normalizazio ikuspegitik Zer lortu nahi duzu?

Zer behar ditu hizkuntza arloan?

- ESKOLA:
- 1.- ANIMAZIOA
- 2.- KANONIZAZIOA (NORNA)
- 3.- AGERTASUNA

Zer esan/adierazi nahi diozu?

- ONBI ETORRI PABLO, FOR MODU? (HARRERA)
- NOLA DABIRAN? NOLA ZARA?
- ZE ESERU OZU? ZE NAKI OZU?
- ELLEN BERTI EMAN
- ANKORAN BERRI ERABAN, ANI ERABANAN BERRI EMAN

2.- Harrera integrala antolatzeko bideak Zein urrats emango dituzu harrera integral bat emateko egitura sortzeko (harrera-mahaia, harrera eremua...)?

- BOTE ADIBIDEAN INFLUENTIA HARRERA FORAN, BAITA HARRERAAN.
- PABLO MURTAREN BAIEN ERABAN/ HERRIEN/ ERABAN - EN ARTEKO KANONIZAZIOA

Udaleko eta herriko norekin arituko zara elkarlanean harrera integralerako bidean?

- ESKOLA eta UDALA.
- GURAZO ELIZATEA.
- UROLA de LUTUR TALDEAK.
- PILATA ESKOLA. - JENI ALANA + INFANTEL
- HERRIARRAK.

Zer lortu nahi duzu?

- INTEGRATZIOA.
- ERABATEKOA.
- BAI BERTIAGO HARRERA.
- ETILOGO BERTIAGO HARRERA.
- ANKORAN ARRETA ERABIA.
- ELLEN BERTIAGO ERABATEKOA LITUR LOZTU, ERABAN TRASHIBOTE HAN PABLO.
- PA BLOREN ERABATEKOA.
- PABLOAN HERRIEN BERTIAGO, HERRIEN ERABATEKOA BERTIAGO HARRERA BERTI, ANKORAN HARRERA

4. ONDORIOAK

Talde bakoitzak lau zapabost ondorio atera zituen eta jardunaldia bukatu aurretik haiek laburbildu eta multzokatu genituen ariketan parte hartutakoei itzultzeko.

Hauexek dira ondorio nagusiak:

- **Ezezagutza** handia dugu gaiarekiko.
- **Sarea, elkarlana eta zubiak behar ditugu**
Udalen eta eragileen artean, baina baita EAEko eta Euskal Herriko beste erakunde batzuekin ere (HABE, AEK, EJKo Hezkuntza Saila...)
Denon arteko lanketa egin beharko genuke, ibilbidean parte hartzen dugun denon artekoa: entrenatzaileak, irakasleak, familia, arlo sozioekonomikoa, erlijiosoak, dendariak, osasun langileak, GKEak...
- **Aliatu informalak garrantzitsuak dira**
Identifikatu ditzagun eta baliatu (lider erlijiosoak, elikagai bankuak, azokak...)
- **Beraingana joan eta beraiekin lan egitea ezinbestekoa da**
Interesa agertu, hurbildu, entzun, ikusi, enpatia erakutsi
Laguntza+informazioa EMAN eta informazioa+beharrak JASO
Elkarren ondoan bizitzetik elkarrekin bizitzera igaro beharko genuke
- **Gizartea sentsibilizatu eta aktibatu behar da**
Ostalaritza, dendariak... baina baita euskara teknikariak ere!
- **Harrerak integrala eta unibertsala izan behar du**
Eta humanizatua, pertsona erdigunean jarriko duena subjektu aktibo gisa
Eta pertsonalizatua profilaren arabera
Euskara hasieratik txertatu behar da zeharlerrotasunez
- **Euskara plazerarekin lotu behar dugu, afektibitatearekin**
- **Egitura**

Goiko hauek denak aintzat hartu ondoren beharrezko egitura sortu beharko dugu: harrera mahaia, harrera plana, erreferenteen sarea, baliabideen zerrenda, harreragileen identifikazioa, harrera protokoloa, harrera guneak eta uneak... dena delakoa.

udal**top**

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus